

IARTZAGAINAKO TUNELA ETA OBRAREN MANTENTZEA ESKATZEKO MOZIOA

Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidea Bikoizteko Egitasmoa 1.994 eta 1.996 artean artean egin zen. Hasierako proiektuak ez zuen Iartzagainean inongo tunelik aurreikusten eta proiektuak “lubakia” planteatu zuen inguru honetarako. Hernaniarrok egindako alegazio eta eskaerei esker, 1.996ko abenduaren 3an eta 1.997ko uztailaren 8an Hernaniko Udalak hartutako erabakietan Gipuzkoako Foru Aldundiari eskaera egin zitzaion proiektua moldatu eta Iartzagaineako pasabidean tunelak egiteko, horretarako ingurumen eta zonaldearen eraldaketa arrazoiak argudiatuz.

1.997ko uztailaren 29an, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Hernanik egindako alegazioak onartu eta proiektua aldatu egin zuen. Iartzaigainean tunel bidez egingo zen bertako pasabidea.

2.010eko azaroan Hernaniko Hegoaldeko Saihesbidea Bikoizteko Egitasmoa onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak eta berau da Hernaniko Udalak egun duen Egitasmoa.

2012Ko urtarrilaren 5ean idazki xume baten bidez Gipuzkoako Foru Aldundiak Hegoaldeko Saihesbidea Bikoizteko Egitasmoaren Aldaketa onartzeko asmoa zuela jakinarazi zigun eta tunel faltsuaren bikoizketa alde batera utzita Iartzagaineako pasabidearentzako hartuko zuen irtenbide teknikoa “lubakiarena” izango zela.

Erabaki honen aurrean Hernaniko Udalak hurrengo adierazi nahi du:

1.-Gipuzkoako Foru Aldundiari exijitu nahi diogu gauza dezala saihesbidea bikoizteko egitasmoa 2010eko azaroan onartu zen moduan.